

NONdik NORa



Eneko Olasagasti
ZINEGILEA
@EnekoOlasagasti

Donostiako Zinemaldiaren baitan eskainiko den Euskal Zinearen aurkezpena hurbildu nintzen. Zenbat jende, aizue, harritzekoa benetan. Ez dut uste gure herrian zinea egitetik jende asko bizi denik, baina zinetik bai ordea. Inoizko partaidetzarik handiena omen da aurtengoa, hogeitaz film. Niri, egia esan, eta laburrak kanpoan utzita, hamazazpi ateratzen zaizkit. Hala ere... Ziur zenbakien lilurak albiste ona dela esanaraziko diola askori. Ez naiz ni kontrakoa esaten hasiko, baina zalantzak ditut. Sail nagusitzat har ditzakegunetan bi bakarrik azaltzen baitira. Ofizialean, baina lehiaketatik kanpo, Telmo Esnalaren *Dantza* eta Zuzendari Berriak delakoan Koldo Almodozen *Oreina*. Botila erdi hutsik ikusten dutenek behera egin dugula esango dute.

Handik egun batzuetara Gipuzkoako Foru Aldundiaren *Etorkizuna Eraikiz* ekimenaren barruan euskal zinemaren etorkizunaz aritu ziren Jose Luis Rebordinos, Itziar Ituño eta Aitor Arregi. Teknologia berriak, sare sozialak, kontsumo ohituren aldaketak, plataforma berriak eta abar aipatu ziren baina denon ahotan dauden horietaz aparte garbi geratu zen zaila dela iragarle lanak egitea. Gure tamainako zinemagintzekin alderaketan ibiltzeko ohiturari jarraiki, Danimarka eta Islandia bezalako herrialdetan garatzen dituzten politikak eta ereduak aipatu ziren. Eta nik ezaugarri nagusi bat aipatuko nuke, herrialde horietako agintariekin euren zinemagintza pro-

pioa garatzeaz duten kontzientzia. Konparaketa horretan, botila erdi beteta ikusten dutenek ere galtzaile ateratzen garela esango dute.

Beste garai batzuen aldean, egun ez da zalantzan jartzen geure historia geuk kontatu behararren garrantzia. Eta nagusitzen ari den beste ideia bat "ikusgarritasuna" da. Ez da nahikoa egitea gero ikusten ez bada. Eta horren harira Zinemira sailaren eraginkortasunaz ere hitz egin zen. Garbi dago Zinemaldia lehiotza handi bat dela gure filmak erakusteko, baina non ikusten diren kontu garrantzitsua da. Ez da berdin Ofiziala, Zabaltegi, *New Directors* edo Zinemira. Zinemirara ez da industria delakoan dabilen jenderik hurbiltzen. Beraz ez dituzte pelikulak ikusten. Beraz, Lekeitioko Bileran emateak bezalako eraginkortasuna dauka. Ez, Bilerak baduelako Euskal Herriari begira eraginkortasun handiagoa.

Horri Euskal Zinearen egunean ospatzen den Festaren traza hartzen diot. Hortxe biltzen gara Euskal Zinearen inguruan gabiltzanok, ez denok baina ezta beste inor. Hala ere, ziur naiz, urteko beste edozein egunetan ospatuko balitz ez litza-tekeela hainbeste jende hurbilduko. Glamourra izango da nonbait.

Ez dakit nola ikusi botila, erdi hutsik edo erdi beteta. Gauza bakarra dakit. Euskal zinearen aurkezpena egiten zen egunean bertan *Non* filma estreinatzen zen. Lehenengo pasean hamar lagun ginen. Ondorioak zeuek atera. ■

Matrikula zabalik!



Leire Narbaiza
Arizmendi
IRAKASLEA
@txargain

Miguel Bilbon bizi da, eta lan-kontratu txiki bat du. Astia duenez, orain ikusi du unea euskarari ekiteko, A ereduari "ni Miguel naiz" baino gehiago ikasi ez zuelako. Baina informazio bila joan denean, dirutza ordaindu behar duela jakin du. Gainera, ez dago diru-laguntzarik. Tira, esan diote matrikula pagatu, kurtsua egin, asistentzia ona izan, eta azterketa gaintzen badu, dirua itzuliko diotela, edo hurrengo ikasturtean matrikulatzeko bono bat emango diotela. Berak aurrez jarri beharko ditu otxinak. Bere egoeran, ezinezkoa.

Carme katalana da, eta Euskal Herrian bizi da, ez hiriburu batean, herri ertaina da berea.

Astia du, euskara ikasteko gogoz dabil, dirua ez da arazoa; gainera, bere herrian behe urratsetan dabilen matrikula erdi prezioan dago. Animatuta dago, baina herriko euskaltegi bietan ez da sortu talderik, zortzi ikasle behar direlako gutxienez taldea abiatzeko. Beste herri batera joan beharko da, ea bertan talderik ateratzen den. Seguruenera, ezingo du asmoa bete.

Euskara gaitza ei da. Karua ere bai. Sarri, ezinezkoa izena ematea. Gaztelania ikastea, ostera, doan da; eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak ordaintzen du. Zein da irtenbidea Miguel eta Carmerendako? ■